

AGINTARIAK ETA LANGILEAK

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

4465

2412/2025 EBAZPENA, irailaren 22koa, Bilbo-Basurtuko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Amelia Valladolid Urdangaray andrea aldi baterako eta lau urte luzagarritz izendatzen baita Obstetrizia eta Ginekologiako atal sanitarioko buru (Obstetriziako Arloa), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Bilbo-Basurtuko Erakunde Sanitario Integratuan.

Bilbo-Basurtuko ESIko zuzendari-gerentearen otsailaren 26ko 420/2025 Ebazpenaren bidez, deialdi bat argitaratu zen Bilbo-Basurtuko ESIko Obstetrizia eta Ginekologiako Atal Sanitarioko buruaren (Obstetriziako Arloa) lanpostu bat hornitzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2025eko martxoaren 26ko EHAA, 59. zk., eta 2025eko apirilaren 8ko BOE, 85. zk.).

Epaimahai kalifikatzaileak baloratu egin ditu aurkeztutako eskabideak, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, Amelia Valladolid Urdangaray andreak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, erabaki da pertsona hori Obstetrizia eta Ginekologiako Atal Sanitarioko buru (Obstetriziako Arloa) izendatzea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Bilbo-Basurtuko ESIan.

Beraz, bat etorritz Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru garren arau komunean, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan xedatutakoarekin,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Amelia Valladolid Urdangaray andrea Obstetrizia eta Ginekologiako Atal Sanitarioko buru (Obstetriziako Arloa) izendatzea, aldi baterako, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Bilbo-Basurtuko ESIan.

Bigarrena.– Izendapen honek lau urteko indarraldia izango du, luzatzeko aukerarekin, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikulua hiru garren arau komunean ezarritakoaren arabera, eta egun honetatik aurrera izango ditu ondorioak: 2025eko irailaren 22a.

Hirugarrena.– Izendatutako pertsonak aipatutako epea amaitzean utziko du lanpostua, baldin eta jazotzen ez bada luzapena egin ahal izateko baldintzaren bat eta, betiere, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen aipatutako 28. artikulua ezarritakoarekin bat etorritz.

Laugarrena.– Izendapenaren indarraldia amaitu aurretik ere kendu ahal izango dute kargutik izendatua, aldeztu aurretik kontrako espediente baldin badago eta ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua 6. apartatua aurreikusitako lekualdatze-kausak direla medio.

2025eko urriaren 23a, osteguna

Bosgarrena.– Interesdunari eta Bilbo-Basurtuko ESlari ebazpen honen berri ematea.

Seigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako hilabeteko epea izango da, Ebazpena EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bilbo, 2025eko irailaren 22a.

Bilbo-Basurtuko ESiko zuzendari-gerentea,
JESÚS MARÍA LARRAÑAGA GARITANO.